

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

236

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 19koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan Kontratudun Langileen III. Hitzarmen Kolektiboa aldatzeko akordioa erregistratu, gordailutu eta argitaratzeko dena, kanpo finantzaketa duten ikerkuntzan eta ezagutzaren transferentzian laguntzeko teknikari ez-iraunkorren baldintzei buruzkoa (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86000272011993).

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2024ko azaroaren 5ean aurkeztu da REGCONen aipatutako hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordioari dagokion dokumentazioa, dagokion enpresa-eta sindikatu-ordezkaritzek sinatua.

Bigarrena.– 2024ko azaroaren 15ean zuzenketa errekerimendua egin zen, eta 2024ko abenduaren 17an bete zen.

Hirugarrena.– Aipatutako hitzarmenaren sinatzaileek erregistro, gordailutze eta argitalpenerako eskabidea izapidetuko duen pertsona izendatu dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 2. artikuluan Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sortzen du, eta 7. artikuluan, sail horren funtzioen artean jasotzen du lan-arloko legeek lan-harremanei buruz ezartzen dutena egikaritzea.

Aipatutako sailaren barruan, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza da organo eskuduna Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroa zuzendu eta kudeatzeko, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 232/2024 Dekretuaren 13.1.i) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.– Sinatutako akordioak Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu.

Hirugarrena.– Aurkeztu den akordioa egintza inskribagarria da maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikulua aintzat hartuta. Horrenbestez, inskripzio-eskaera eta atxikitako agiriak aztertuta, egiaztatu da eskaerak betetzen dituela legezko baldintzak, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroari eta gordailuari buruzko urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 9. artikulua aintzat hartuta (dekretu hori otsailaren 14ko 20/2023 Dekretuak aldatu zuen), hau

2025eko urtarrilaren 16a, osteguna

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta akordio kolektiboen eta berdintasun-planen erregistroan inskribatu eta gordailutzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea akordioa.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 19a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
ANGEL LAPUENTE MONTORO.

TEKAZEL LAN KONTRATUDUNEN NEGOZIAZIO BATZORDEAREN AKORDIOA,
UPV/EHUKO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LAN KONTRATUDUNEN III.
HITZARMEN KOLEKTIBO AALDATZEARI BURUZKOA (HITZARMENAREN KODE ZK.:
86000272011993), KANPO FINANTZAKETA DUTEN IKERKUNTZAN ETA EZAGUTZAREN
TRANSFERENTZIAN LAGUNTZEKO TEKNIKARI EZ-IRAUNKORREN BALDINTZAK
ARAUTZEKO

Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuak (lan erreformarako, enpleguaren egonkortasunaren bermerako eta lan merkatuaren eraldaketarako premiazko neurriei buruzkoa) aldatu egiten du Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua, kontratu mugagabeen presuntzioa berariaz ezarriz, obra edo zerbitzuko aldi baterako egungo kontratua ezabatuz, eta kontratua berriz definituz (ekoizpen gora-beherengatik eta langilea ordezkatzeko).

Gainera, laugarren eta bosgarren xedapen gehigarrietan jasotzen da sektore publikoko lan kontratudun langileei lan kontratazioaren arloan aplikatu beharreko araubidea, bai eta arlo horretan aplikatu beharrekoa ere Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari eta Europar Batasuneko funtsei lotuta dagoenean.

Bestetik, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren lan kontratazio arloko premiazko neurriak hartzen dituen apirilaren 5eko 8/2022 Errege Lege Dekretuak aldatu egiten du Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legea, aukera eskainiz lan kontratu mugagabeak egiteko jarduera zientifiko-teknikoetarako Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren barruan, eta garatu egin beharko da jarraibide metodologiko egokiak erabilita I+G+B proiektu gisa.

Era berean, irailaren 5eko 17/2022 Legeak aldatu egiten du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legea. Zehazki, hamargarren xedapen gehigarriak mugatu egiten du jada aipaturiko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriaren aplikazioa, aldi baterako kontratazio modalitateen erreformari dagokionez, sektore publikoko erakundeek iraupen mugatuko kontratuak egiten dituztenean –Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan araututako erakundeak–, betiere kontratu horiek lotuta badaude Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren betearazpen zorrotzari, eta proiektu horiek gauzatzeko behar den denborarako bakarrik, bai eta Europako funts ez-lehiakorren mende dauden aldi baterako programak gauzatzeko behar diren kontratuetarako ere.

Legegintza berritasunak egokitzeko kudeaketako eta administrazio teknika-rien barne araudira, akordio hau egin dute UPV/EHUKo eta sindikatuetako ordezkariak:

AKORDIOA

Lehenengoa.– Proposatzen da bosgarren puntu bat gehitzea III. Hitzarmen Kolektiboaren 10. artikuluari. Honela:

«10. artikulua.– Lanpostuen zerrenda.

5.– Ez dira unibertsitateko egiturazko lanpostutzat hartuko ikerketan eta ezagutzaren transferentzian laguntzeko teknikari ez-iraunkorrak kanpo finantzaketa bidez kontratatuz bete nahi diren funtzioak».

Bigarrena.– Proposatzen da 12.2 artikulua aldatzea eta honela uztea:

«2.– Lanpostuen zerrendako dotazio bakoitza dagokion kategorian profesionalean eta sailkapen taldean sarturik dago, eta ezarritako espezialitate eta lanpostuetako batean kokaturik.

Era berean, lanbide sailkapen hori aplikatuko zaie ikerkuntzan eta ezagutzaren transferentzian laguntzeko teknikari ez-iraunkorren kanpo finantzaketa bidezko lan kontratazioei, eta III. taldekoa izango da kontratazio horietarako gutxieneko kategorian, teknikari espezialista lanpostuaren ordainsari mailari dagokiona».

Hirugarrena.– Proposatzen da 5. puntu bat gehitzea 13. artikuluari. Honela:

«13.5.– Ikerkuntzan eta ezagutzaren transferentzian laguntzeko teknikari ez-iraunkorren kontratazioa kanpo finantzaketa bidez.

Ondoren aipatzen diren arauen bidez arautuko dira kanpo finantzaketa finalistaren kargura izapidetuko diren ikerketan eta ezagutzaren transferentzian laguntzeko teknikari ez-iraunkorren kontratazio modalitateak: 32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, lan erreformarako, enpleguaren egonkortasunaren bermerako eta lan merkatuaren eraldaketarako premiazko neurriei buruzkoa; 8/2022 Errege Lege Dekretua, apirilaren 5koa, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren lan kontratazio arloko premiazko neurriak hartzen dituenak; eta 17/2022 Legea, irailaren 5koa; edo horiek ordeztzen dituen araudia, aldez aurretik sindikatuekin negoziatuta.

Kontratazio modalitate horiek ez dakarte inolako konpromisorik kontrataturiko langileak ondoren UPV/EHU sartzeko.

Lanpostuen zerrendako postuen sailkapen elementuak partekatzen dituztenez, 18.4 artikulua aplikatuko zaie».

Laugarrena.– Proposatzen da bigarren paragrafo bat gehitzea III. Hitzarmen Kolektiboaren 14.1 artikuluari. Honela:

«14. artikulua.– Unibertsitatean sartzea. Enplegu eskaintza publikoa.

1.– Hitzarmen kolektibo honetako 15. eta 16. artikuluek arautzen dituzten prozesuetan (hau da, lanpostu hutsak betetzeko prozesuetan eta barne promoziorako prozesuetan) hutsik geratutako lanpostuak izango dira UPV/EHUko lan kontratudun langileentzako lan eskaintza publikoan sartuko direnak.

Ez dira Enplegu Eskaintza Publikoan sartuko ikerkuntzan eta ezagutzaren transferentzian laguntzeko teknikari ez-iraunkorren kontratazioak, kanpo finantzaketa bidezkoak».

Bosgarrena.– Proposatzen da 18. artikulua aldatzea. Honela:

«18. artikulua.– Lan-poltsak eta aldi baterako kontratazioa.

1.– Lan-poltsak. Lanpostuen zerrendako nahiz lanpostuen zerrenda horretatik kanpoko aldi baterako lan beharrei erantzun ahal izateko zerbitzuak betetzeko, gaur egun UPV/EHUko lan poltsetan dauden eta etorkizunean egongo diren langileei aplikatuko zaie 2017ko uztailaren 18ko Akordioa, lan-poltsak konfiguratzeari eta kudeatzeari eta lan-poltsetako kideak antolatzeari buruzkoa, edo hura ordeztzen duen arautegia.

Aplikatu da ere ikerkuntzan eta ezagutzaren transferentzian laguntzeko teknikari ez-iraunkorrek kanpo finantzaketa bidez kontratatze arautegi hau.

(...)

4.– UPV/EHUko zerbitzuen funtzionamendu ona ziurtatu ahal izateko iraunkorrak ez diren beharrei erantzun behar zaienean, izenpetu ahal izango dira:

a) Iraupen zehatzeko kontratuak, ekoizpenera edo langileen ordezkapenera egokitzen direnak, Langileen Estatutuan eta garapen arauetan aurreikusitakoak.

b) Iraupen mugagabeko kontratuak, ikerketa lerroei edo zerbitzu zientifiko-teknikoei loturiko jarduera zientifiko-teknikoei laguntza teknikoa emateko kontratuak, kudeaketa zientifiko-teknikoa barne, aratuak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2021 Legearen 23 bis artikuluan.

Kontratu horiek izango dira lanaldi osokoak.

c) Iraupen zehatzeko kontratuak, aintzat harturik Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarria, irailaren 5eko 17/2022 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, ondoen egokitzen zaizkienak bete beharreko zereginen iraupenari eta izaerari, eta lanaldi osokoak izango direnak.

b) eta c) ataletan aipaturiko beharrei erantzuteko kontrataturiko langileek jasoko dute lanpostu bakoitzari esleituriko ordainsari mailari dagokion soldata; edo, bestela, egiten diren lanen antzeko eginkizunak dituen lanpostuko soldataren parekoa, eta inola ere ez da izango III. taldeko teknikari espezialistaren ordainsari maila baino txikiagoa.

Lanak ordutegi berezian burutzen badira, hitzarmen honen VI. tituluan ezarritakoa beteko da.

Administrazioak hamabost eguneko epean emango ditu izenpeturiko aldi baterako kontratuen kopiak, eta kontratu luzapenei buruzko jakinarazpenak ere epe berean egingo ditu».

AZKEN XEDAPENA:

Akordio hau, eraginkorra izan dadin, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak berretsi beharko du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Ondoren, hitzarmen kolektiboan jasoko da.